

TURISMOKO TEKNIKARIA POSTURAKO HAUTAKETA PROZESUA

1.-LANPOSTUAREN FUNTZIO NAGUSIAK :

PDF formatuan atxikituta geratzen da

2.- AZTERKETAK:

azterketa eguna: otsailak 12

ordua: 9:00

lekua: Debagoieneko Mankomunitateko 2. solairua (Nafarroa Etorbidea 17-20500 Arrasate)

Idatzizko galdetegi labur bat egingo da honako gaiak barneratu daitezkelarik:

- Debagoieineko eskualdean dauden baliabide turistikoak: natura, gastronomia eta ondarea
- Debagoieneko eskualdean dauden enpresa turistikoak
- Dirulaguntzak kudeatzeko prozedura

Gainditzen dutenen artean elkarrizketa egingo da. Gainditzen dutenen zerrenda, 2026/02/13 argitaratuko dira web orrialdea.

3.- ELKARRIZKETAK

azterketa eguna: otsailak 17

ordua: 9:00

lekua: Debagoieneko Mankomunitateko 2. solairua (Nafarroa Etorbidea 17-20500 Arrasate)

Atzerriko hizkuntza ezagutzea aintzat izango da (tituluak aurkeztu beharko dira)

TXOSTEN TEKNIKOA

TURISMO ZERBITZUAN TEKNIKARI BAT KONTRATATZEKO PROPOSAMENA

Koldo Azkoitia Zubizarreta, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako Zerbitzuko arduradunak,

AZALTZEN DU

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Zerbitzuak diseinatutako urteko ekintzen plangintzak ekitaldi ezberdinak eta Arantzazuko Turismo Bulegoaren kudeaketa jasotzen ditu. Ekimen horiek garatzeko, urtean zehar, hiru teknikariz osatutako taldea dago eta horietako bat bajaz dagoenez ordezkatu beharra dago.

Ordezkapena bideratzeko, Debagoieneko Mankomunitateak, eratutako Lan Poltsa erabat agortuta dagoenez, beste erakunde publikoei eskatu zaie dituzten lan poltsak bidaltzea. Horrela, Getariako udaleko 2021. urteko Turismoko Laguntzaileen Poltsan jasotako pertsonekin harremanetan jarri gara, baina kontaktatutako zerrendako pertsona guztiek eskaintza ez dute onartu.

Hori guztia kontuan izanik eta Turismo Teknikariek osatutako Lan Poltsarik ez dagoenez, Lanbiden lan eskaintza bat jartzea proposatzen da eta horretarako

ESKATZEN DU

Turismo Zerbitzuan aritzeko eta aurretik zehaztu diren egoerei aurre egiteko, turismo teknikari bat kontratatzeke lan eskaintza bideratzea Lanbidera.

Kontratu beharreko teknikariaren profila ondokoa izatea proposatzen da:

- Unibertsitateko diplomatura / graduatua / lizentziatua: turismo, ADE, historia, pedagogia, magisteritza, kazetaritza, filologia.
- Euskarako C1
- Gidabaimena+kotxea
- Esperientzia izatea, turismoko gaien kudeaketan, bisita gidatuetan eta turismo bulegoko arretan
- Debagoiena eskualdeko ezagutzea
- Administrazioko izapideei buruzko ezagutza
- Ofimatikako ezagutza egiaztatuak
- Dirulaguntzen kudeaketan ezagutza
- Telematikoki lana egiteko ahalmena
- Zeharkako gaitasunak izatea: taldean lana egiteko gaitasuna, beste langileekin koordinatzeko ahalmena, inizatiba izatea, eguneroko arazoei aurre egiteko ahalmena.

Lanpostuaren adierazleak:

- Sailkapen taldea: A2
- Azpi eskala ZB
- Ordutegia: Egutegiaren arabera (aste bukaera batzuk barne) 1.592 ordu urtean.
- Lanpostuaren urteko lansariak guztira: 52.622,45 euro.

Oharra: Eranskinean jasotzen da lanpostuak beteko lukeen funtzio nagusiak.

Arrasaten, 2026ko urtarrilaren 16an.

Koldo Azkoitia Zubizarreta
Garapen Agentzia Zerbitzuko arduraduna

ERANSKINA (Lanpostuaren Funtzio Nagusiak)

- Eskualdean, bisita gidatuak (Arantzazuko santutegikoak zein Arrasatekoak, bereziki) eta horiekin lotutako lanak burutu: erreserbak kudeatu, bisita gauzatu, bisiten erregistroa eraman, etab.), horretarako bere lankideekin koordinatuz eta arloko arduradunek ezarritako irizpideak jarraituz.
- Arantzazuko turismo bulegoan bisitariei harrera eta arreta zerbitzua eskaini, horretarako bere lankideekin koordinatuz eta arloko arduradunek ezarritako irizpideak jarraituz.
- Bisitarien datuak eta urteko memoria eta diru kontuen laburpena egin.
- Material turistikoaren sorrera, itzulpenak, eguneraketak, etab. burutu.
- Arloko arduradunek ezarritako irizpideen arabera, teknikari bakoitzari esleitutako programen eta produktu turistikoen kudeaketa integralaz arduratu:
 - Programa zein produktuen diseinua, garapena, koordinazioa eta gidaritza (eragile publiko zein pribatuekin koordinatuz eta elkarlanean) burutu
 - Programa zein produktuen garapenak suposatzen dituen jarduera eta ekitaldien koordinazio, antolaketa eta garapenaz arduratu.
 - Ekitaldi eta jarduera desberdinen euskarrietako (argitalpenen) testuen eta irudien (argazkiak ateratzea barne) zehaztapena.
 - Aholkularitza lanak burutu eskualdeko turismo arloko eragile publiko eta pribatuei (diru-laguntzen informazioa, enpresak sortzeko aholkularitza, etab.
 - Bitartekari lanak burutu
 - Produktu turistiko desberdinen arabera Lan talde desberdinen sorrera, koordinazioa eta kudeaketa (jatetxeak, artzainak, Arrasateko udala, Aretxabaletako udala, etab.)
 - Programak Turismo bulegoan ezarri eta eguneratu
 - Programen inguruko Komunikazioaz arduratu: web orriaren eguneraketa, sare sozialen kudeaketa, ekintzen promozioa online zein off line, materiala sortu eta argitaratu, euskarrien diseinua, edukiaren zehaztapenak, ekitaldien promozio jarduerak burutu, etab.
 - Programa edo produktu bakoitzaren kudeaketa ekonomikoaz arduratu, ekintza desberdinen gastuak kudeatu, aurrekontuak, eskatu, jarraipena egin, etab.
 - Basquetour-ek antolatutako lan taldeetan parte hartu, teknikari bakoitzaren ardurapeko programa edo produktu turistikoen arabera.
- Debagoiena eskualdeko turismo arloko plangintzaren diseinua, garapena eta balorazioa egin, bere lankideekin elkarlanean eta eskualdeko eta eskualdez gaineko eragileekin koordinatuta.
- Turismo arloaren lehiakortasuna bultzatzeko egitarauen garapenaren jarraipena eta gidaritza, Eusko Jaurlaritzarekin eta Basquetour-ekin koordinatuz, teknikari bakoitzaren ardurapean dauden programa edo produktuei dagokionean.
- Garapen agentziako bileretan zein Batzorde informatzaileetan parte hartu, teknikari bakoitzaren ardurapeko gaiak aurkeztuz.
- Turismo arloko urteko aurrekontuen zehaztapena eta kudeaketa, diru-laguntzen kudeaketa, etab. lankideekin elkarlanean eta arloko arduradunek ezarritako irizpideak kontutan izanik.
- Eskualdez gaindiko erakundeekin koordinazio lanak burutu (EJ, GFA, Basquetour, etab), teknikari bakoitzaren ardurapeko gaiak dagokionean.
- Eskualdeko udal eta turismo teknikariek koordinazioa bermatu.
- Eusko jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru aldundiarekin batera turismo azoketan (FITUR, Sevatur, Navatur, etab.) parte hartu, arduradunek ezarritako irizpideen arabera.
- Urteko plangintzan jasotako bestelako egitarau edo proiektuen garapena, lankideekin elkarlanean eta arloko arduradunek ezarritako irizpideak jarraituz.
- Eusko jaurlaritzatik zein GFA-tik bideratzen diren promozio jardueretan parte hartu, eta jasotzen diren kazetari eta komunikabideen bisitei harrera eman, lankideekin elkarlanean eta arloko arduradunen irizpideak jarraituz.
- Arloko arreta lanak, bai aurrez aurrekoak zein telefonoz edo bide telematikoen bidez.
- Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.